

# Erlojugilea





**Asier Serrano** | (Eibar, 1975). Hogeita bi urte zituela argitaratu zuen *Bada hiri gorri bat* bere lehen poema liburua (Elkar). Geroztik, hainbat literatur genero jorratu ditu. 2001. urtean *Hoteleko kontuak* (Apokaliftin) narrazio bilduma eta *Mari Basajaunaren eremuan* (Txalaparta) haurrentzako liburua argitaratu zituen eta 2007an *Picassoren zaldia* (Elkar) poema liburua eta *Eskuetan mapak* (Txalaparta) eleberria. Literaturaz gain, musika munduan ere hainbat lan egindakoa da: Lorelei taldeko abeslaria eta letragilea da, eta bakarka hainbat disko atera ditu, hala nola, *Ez esan inori*, *Hoteleko kantuak* eta *Gerrari bai*.

Asier Serrano

# Erlojugilea



© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Asier Serranok OBRARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Eteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN  
978-84-8136-548-1  
LEGE GORDAILUA  
BI. 1.474-09



*Gaizka, zuri...*

*Lurrean zeru eta zeruan izar zaren horri.*

## HITZAURREA

MUNDUKO BIZTANLERIAREN ehuneko hogeita hamabost inguruk –zifrak estatistikaren jatorriaren araberatik aldatzen dira, baina behingoz, mesedez, diotsuedan hau inon egiaztatzen ahalegindu aurretik, utzidazue esatera nindoana amaitzen–, baliabide guztien ehuneko laurogei inguru ustiatzen dute. Hirugarren munduko bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten gobernuz kanpoko erakundeetako edozein kidek erantzungo lidake hori gure aurreko belaunaldietatik ere jakina dela. Ezagun dudan emakume biltzarreko lagun batek euren kasuan horrela gertatzen dela erantzungo luke, etxeko martxan eta haurren heziketan arduraren laurdena ere hartzen ez dutenek, aberastasunean dagokien baino askoz gehiago hartzen dutela. Gurearen au-

---

Hitzaurrearen egileak sinadura ezkutatu nahi izan du, liburuaren protagonistak izena ezkututzen duen gisan.

rreko hainbat zibilizazio ere ados etorriko lirateke. Idazleak ez. Idazleak, maiuskulaz diren horiek, erantzungo lukete: Nik ez dut azkenaldian inkestarik bete. Nondik atera duzu hori?

Ez dakit oraindik zer den irakurri dudana, eta agian horregatik, txiste txar batekin hasi gura nuen pasadizo hau. Hitzaurre baterako laudorio eskasa esango du batek baino gehiagok. Hitzaurreak, ordea, losintxa lotsagabe mordoaz gain besterik ere esan beharko luke, edo ez autoreaz, eta ez liburuaren balioaz ere ezin bada ezer erantsi, orduan, gutxienik, zintzoa beharko luke izan. Berehalakotasunaren aroan, ez daukat hain ziur txarra denik hori. Zalantza islatzen du, eta berehalakotasunak, zalantzak etsai ditu. Nobela bilakarazi duten ipuina izan liteke, azken urteetan, European zehar hainbat ahalegin egin diren moduan (Baricco, Fermine, etab), entsegu ez akademizista –horrelako entseguak ere badirelako, egilearen curriculum bano luzeagoak ere badirenekin batera–, dialogo gutxiko antzerki testua. Bidaia inizatiko baten kontakizuna izan zitekeen –behintzat, horrela aitortzen digute askotan, bestela non sailkatu asmatzen ez duten autore askok–, baina ez da, ezin liteke izan, hasieratik jakin baitakigu bidaia ooren ezaugarri diren irteera, helmuga kasu honetan ez direla existitzen. Horregatik, hipokrisiaren txantxa bat izan liteke honakoa. Liburuan deskribatzen zaigun geografik laguntzen du horretara. Geografia –fisikoa zein tenporala– apropos da zehaztugabea oso, Eso-

poren fabuletan bezala. XV. mendetik aurrera edozein urtetan egon gintezke, mortuaren erdian gasolindegia ez baleude. Gobernadoreak, boterearen isla ustelak diren enparantza eta luxuzko gazteluek, fusilatzeenak eta ziegako zigorraldiak, kontakizuna arintzen duten egunerokoaren pasarteek duten tonuarekin batera, haurtzaroan hain atsegin nituen Salgari, Dumas eta Vernereren atmosfera orotarazi didate. Eta txantxaren azken aukera honekin geratzea hautatu dut, eskuartean duzun liburu hau hirugarrengoz irakurri dudanean aste santuko opor betean aurkitzen naizelako, eta horrela behar dudalako esan, edo horrela esatera bultzatzen nauzuelako. Erabakiak ez bezala, ardura ez baita komeni –edo ez dugu asmatu behintzat– kolektibizatzea edo asanblada baten gain ezartzea, ez guk ez beste inork ere, ez behintzat, taldea edo asanblada bera desagertu eta banatu aurretik. Eta hori da, aipatzeko modukoak ez diren beste hamaika gauzarekin batera, hurrengo belaunaldiei eskaintzeko duguna. Mantsoegiak edo bezatuegiak hezi gaituzte beste ezertarako.

Beste horrenbeste gertatu zaio eskuartean duzun narrazioko protagonistari. Eta behingoan, autorearen inolako *alter egorik* izateko ez irrikarik ezta trazurik ez duen protagonista aurkitzearekin pozten naiz. Azkenaldian, inolaz bizimodu interesgarria dutenik esan ezin dugun gure zenbait autoreren bizitza nobelatua irakurtzeaz aspertuta. Guixienez, anbigua bezain anonimoa dela esan

nezake, eta azken orrira iritsitakoan, apur bat hausnartuz gero, izena ere ezagutuko ez dudan horren-gandik, atsegin irudiko hitz bakarrak horiek ditut. Beharbada higuina eman didalako, pena edo atsekabea –solidaritatea ere deitzen diote zenbaitzuek– sentiarazi behar zidanean. Moralaren, edo gizarte gutxi gorabehera antolatua-aren arauen –legezkoak eta bidezkoak eta halaber beste guztien– gainetik balego bezala jokatzeko duelako. Ez didalako uzten psikopata hutsa edo aldrebes galanta (eta badakit galanta ez, kijoteskoa dela hitz egokiena) den erabakitzen. Ez duelako ezein egitasmok bere bizitza gobernatu, eta inon ezin kokatu dudan arren, nire barruan, gordetzen nituela ere susmatzera iritsi ezin nintzen sentimendu kontrajarriak altxatu dituelako nigan, gozoak eta arinak izan diren arratsaldeetan.

Ez da gutxi bizirik jarraitzen dudala ohartarazteko ere.

Norberaren erabakia da, hona iritsitakoan, denbora norekin eta zertarako alferrik galdu erabakitzea.

---

Munduko inoizko herritan, beste behin, apirila, bere hamabigarren mingarrira iritsi denean.

## BAT

BOST MINUTU ETA HAMABI SEGUNDO. Bost minutu eta hamar segundo falta ziren erloju dendako konponketa gelan orratz guztiek arratsaldeko zortzi-zortziak marka zezaten. Orduan bakarrik, denda ixteko bospasei minutu geratzen zirenean bakarrik, lana utzi eta makurtzen zen erlojugile gaztea ordularien konpas uniforme aditzera. Haritzeko lanmahaiaren bueltan eskumuturreko zein patrikako dozena bat erlojuk adierazten zioten egun luzearen nekeak probetxuzkoak izan zirela. Ordulariei bihotza itzuli ziela pentsatzea atsegina zitzaien erlojugileari, zerbait taupadaka dagoenean bizirik egon behar duen ustekoa baitzen. Gela are gehiago estutzen zuten hormetako erlojuak ere, denbora neurtzearen artea zein magikoa eta akatsgabea izan daitekeen ekartzen zioten gogora.

Hiriko katedraleko kanpandorrera ematen zuen leihatilak soilik hausten zuen konponketa gelako

tik-tak bateratuaren oreka hura, leihatilatik at zintzilikatzen zen erloju erraldoia lau minutu eta hogeita zortzi segundo atzeratua baitzebilen. Erlojugilearen azterketen arabera, hilean sei segundo atzeratzen ziren orratzak inor konturatzeke. Erlojugileak bazuen inorekin konpartitzera ausartzen ez zen teoria bat: gobernadoreak bere agintaldia baketsua izango zela zin egin eta horren testigantzan katedraleko enparantzan askatu zituen usoak izan zitezkeen orratzen geldotze pixkanakakoaren errudun. Erloju erraldoiaren orratzetan pausatuta, hiriko biztanleriaren beldurraren behatzaile ziruditen samaldan laukoiztutako sagu lumadunek.

Erabilitako lanabesak olioztatzeari ekin zion erlojugileak, herdoilak burdinan habia har ez zezan. Estatuan kaleratzen zen egunkari ofizial bakararren orriekin zabaldu zuen olioaren erremintetan zehar, eta egunkaria inoiz leitzen ez bazuen ere, egun hartako titularrak atentzioa lapurtu zion: bihar-munean gobernadorea unibertsitate berria inauguratzera zetorren aintzirako bere jauregi nagusitik hirira. «Primeran», pentsatu zuen erlojugileak, «polizia militarrek kaleetan jarriko dituen kontrol ugariak direla medio, lanera berandu iristeko aitzakia ugazabarentzat». Horrelako kontroletan ezer gutxi balio izaten zion erlojugileari bera bezalako soldadu ohi elbarriei ematen zieten txartela militarrei erakusteak, txartelaren argazkian ageri zen muns-

troaren bisaiaik militarrengan eragiten zuen barre burlatia jasateko ez bazen.

Zortzietarako bi minutu eta berrogei segundo falta zirenean, baina, erloju dendako kukuei, kanpaiei eta txirrinei aurre hartuko zien ate hotsa entzun zen. Konponketa gelako zirrikitu batetik, erlojugileak eskas ikus zezakeen salmahairen beste aldean ugazabarengana hurbildu zen bezeroaren aurpegia. Bizar luzeek eta erantzi ez zituen beroki zabal eta kapela gris ilunak arrotz bihurtzen zuten heldu berria. Badaezpada, olioztatu berri zuen barauts bat eskuratu eta ezkerreko belarri orbaingabea ugazabaren eta arrotzaren solasera hurreratzen utzi zuen. Alferrick, zortzietako kukuek, kanpaiek eta txirrinek baztertu zuten erlojugilea elkarriketa aditzetik.

Narruzko eskularru beltzak antzeman zizkion erlojugileak arrotzari, eta harritu bazen ere narruzko eskuekin eman zion ugazabari kaxa bat zirudiena lehenik, eta gero, bosteko azkar eta estu bat. Ez zitzaion gustatu. Hiru minutu eta hogeita zortzi segundo lehenago igarotako atea berriro zeharkatu zuen arrotzak, oraingoan kalerantz.

Inork ikusiko, inork salatuko, inork epaituko ez balu, eskuan zeraman barautsaz ugazabari kaskezurra husteko kapaz izango ez ote zen galdetu zion

bere buruari erlojugileak, ugazaba konponketa gelan arrotzaren kutxatxoarekin eta irri maltzurarekin sartu bitartean: «Ordu estrak sartu beharko dituk, gazte, bihar goizerako konponduta egon behar dik, ondo ordainduko ziguk. Etxera noak, ez ezak alarma jartzea ahaztu bukatzen duanean». Hari-tzeko lan-mahaitik soa altxatzeke, erlojugileari egunkarian azaltzen zen gobernadorearen argazkiarekin barautsa olioztatzea beste erremediorik ez zitzaion geratu. Katedraleko kanpaietan zortziak jo zuten.

Egurrezko kutxatxoak ez zeukan bereizgarririk, salbu tapakiaren gainaldean itsatsirik zeraman berunezko xafla finari ageri zitzaizkion urradurak. Bazirudien norbaitek beruna urtu eta arestian bertan idatzirik egon zitekeen hitza ezkutatu gura izan zuela. Erlojugileak ez zion kasu handirik egin xaflaren xehetasun horri, berari bost axola kutxa lapurtua izan ala ez, ez zen bere kontua. Tapakia oinarrira lotzen zuen krisketa libratu eta urre gorritz leundutako sakelako erloju eder batek begi bakarra itsutu zion. Horrelako gauza miraritsu eta garai haietan urriekin bakarrik damutzen zen erlojugileak eskuineko begia galdu izanaz.

Erlojuak hamabi-hamabietan zituen geldituak segundoak, minutuak eta orduak seinalatzen zituzten orratzak. Bata bestearen gainean pausaturik, orratzek emakume biluzi baten bihurguneak izan

zitezkeenak agerian uzten zituzten. Orratzak mugitzeko kordari hatzen zuhurtziaz eragin eta orratzak bata bestearengandik kostata urruntzen zirela baieztatu zuen erlojugileak. Emakumearen aldatzen dantza mugatua balitz bezala, orratzak betiere hamabiak markatu nahian zebiltzan.

«Kordaren malgukia izorratuta behar du egon» izan zen erlojugilearen estreinako diagnosis, «ez dio kordaren torlojuari eusten». Aise beteko zuen erlojugileak beharra, atzeko tapakia askatu eta malgukia aldatzea baino gauza errazagorik. Tapakia erlojuaren burdinazko hezurduratik bereiztean eta malguki okertua neurtzean, ordea, haritzeko mahaiaren soinekoan lerratutako tiraderatatik neurri hartako malgukiak aspaldi agortu zituela ohartu zen.

Irtenbide azkar bat behar eta, gobernadorearen diktadurari oldartu zitzaizkien matxinatuei behin, eta inoiz gehiago ez, egin zien enkarguaz akordatu zen erlojugilea. Etxean, arma zaharren segurtasun kakoak konpontzeko erabili zituen malgukiak soberan izan behar zituen nonbait. Erlojuari atzeko tapakia jarri eta orratzei esker imajinatutako emakume biluzia egurrezko kutxatxoan eroso lo har zezan utzi zuen. Biharamun goizean, etxean gosalduta bitartean, erlojuari berriro bihotza itzuliko ziola ebatzi zuen.

Ugazabak agindu bezala, dendako zenbaki digital bakarrak markatu zituen erlojugileak. Alarmaren

kode sekretua sartu eta pantailatxoan hirurogei segundoak atzerantz eraldatzen joan ziren. Hogeita hamabi segundo behar izan zituen erlojugileak belusezko jaka bizkarreratu eta artilezko txapel biseraduna eskuineko alderantz okertzeko. Lehen, hiritar zibilaren nortasuna berreskuratu zuenean, begiko orbaina eta belarri aldeko erredurak estaltzeko, zapi beltz bat kiribiltzen zuen buruaren bueltan. Laster konturatu zen, halere, mozorro antzeko hark arreta gehiago deitzeko besterik ez zuela balio. Bestalde, aspaldi utzia zion ispiluaren aurrean bere buruarekiko errukia azaltzeari... etsipenezko malakoak isurtzeari. Erlojugileak denda ixteko burdinazko hesia jaitsi zuen, erakusleihoak itzultzen zion irudiari erreparatu gabe.

Metro gutxitara zeukan aparkatuta autoa. Lanean hasi zenean tranbiaz egiten zuen etxetik dendarako eta dendatik etxerako bidea, luze gabe, ordea, ugazabak ordu estrak egitera ohitu eta beharra noiz bukatuko zuen ez jakiteak bultzatu zuten erlojugilea autoa erabiltzera. Ez zen arnasarik antzematen hiriko erdiguneko kaleetan. Hain ziren ahulak leiho karratu berdintsuetatik karrikarantz islatzen ziren argiak, ezen bazirudien etxeko sukaldetan bildutako familiek kandela hits baten konpainian afaltzen zutela. Ilargi bete borobilak katedraleko erlojuaren ahizpa bikia zirudien, biek ala biek uso eta saguzar ilunen itzalak argiztatuz.

Autoa martxan jarri aurretik arrotzaren erlojua zeraman kutxatxoa ondoko eserleku azpian ezkutatatu zuen, zer gerta ere. Artean, ugazabarenganako herra ez zitzaion oraindik baretu, eta errepide ia desertuak profitatuz, azeleragailua polizia militarrek baimentzen zuen baino apur bat gehiago saktzen zihoan, barne ekaitza lasaitzeko asmoz, gehienez bi astetik behin bisitatzen zuen auzunerantz. Jakin bazekien biharamunean hari etorriko zitzaiola damua bisitan, gibelaldea, bihotza eta garuna kexuka izango zituela, min agerikoaz bainoago, bakardade sentsazio jasangaitzaz kexuka.

Joanerako bi bideak bakar bihurtzen ziren bigegurutzean, erlojugileak hiriko argi gordeak deskubritu zitzakeen. Emakume izena zeukan zubi berriaren beste aldean.

Zubia oinez zeharkatuko zuela deliberatu eta errenkadan luzatzen ziren auto garestien artean aparkatu zuen. Kontraesana bazirudien ere, inguru haietan seguruagoa zen auto garestien alboan aparkatzea, militarren autoen ondoan baino. Gainera, lapurrek (miserableak izanagatik ez ziren ergelak) nahiago izango lukete farola okertuen argi baldarretan distira egiten zuten autoetan arakatu, erlojugilearen auto ugertuan eskua sartu baino.

Ibaiak ur morea zeraman, eta zubi berriaren arkuen kontra talka egitean, uhin txikiek zilar hits koloreko tantoak isurtzen zituzten. Zubi zaharraren hondaki-

nen landaretzan itsasten ziren tantoak. Zubi zaharra azkenekoz zapaldu zuen egunaz akordatu zen erlojugilea: orduan, oraindik jenerala zen gobernadore buru zutela, igaro zuen zubia gainontzeko soldadukideekin batera, pauso irmoan. Ustez, herriak aukeratutako aurreko presidenteak hiria abandonatu zuen, jeneralaren berehalako altxamenduari ihesi. Inor gutxik pentsa zezakeen presidenteak zubi zaharraren harrizko galerietan aurkitu zuela gordelekua. Salatari koldar batek presidente ohiaren ezkutalekua zein zen argitu orduko, gobernadoreak askatuak zituen usoak katedralean. Presidente ohi atzeman eta fusilatze eguna arteko tartean leherrazi zuen gobernadoreak zubi zaharra, presidente ohiaren sendi eta gertuko fidelenak barruan zituela.

Zubi berria gurutzatzean, orduko pauso irmoa errepikatzea nekeza zitzaiola otu zitzaion erlojugileari. Erloju matxuratuen erritmo abailduan ibiltzeak izorratzen zuen.

Arratoikumeen aieneek ez zuten erlojugilea asaldatu zubia igaro eta auzune goibelean barneratzean. Horiexek izan zitezkeen bertan aditu zitzakeen ongiertori oihu leunenak. Garai ez oso aspaldiko batean hiriko auzorik lasaiena zen; apika horregatik hautatu zuen gobernadoreak gune baztertu hura bere tropa lerratu eta hiria hartzeko. Auzotik inoiz atera behar izaten ez zuten tokiko biztanleek, ordea, aise utzi zituzten bere etxeak zubi zaharra le-

hertu eta zubi berria eraikitzeko langileak ailegatu zirenean. Gobernadorearen faboreei esker, militar erretiratu askok eta askok tabernak ireki zituzten, langileen egarria asetzeko (gehienak aurreko agintaldian preso izandako gizakume arriskutsuak). Berandu gabe, ostalaritzara bihurtutako militar ohiek asmatu zuten nola libratu langileen bestelako go-seak... Estatu kolpeak jipoitutako nekazari herrixketako alabak gogoz kontra tropelean iritsi ziren auzora, haien gurasoek salduta denak.

Noizbait heldu behar zuen, baina, zubi berriaren azken harlauza jartzeko eguna, eta zubigileak lanik gabe gelditu ziren auzoan zehar nora ezean, eguneroko hordiak gidaturik. Zubigileen lekua, hots, nekazari alaben ohatzeetako hotza, hiriaren erdigunetik ihesean zebiltzan orotariko gizonak bete zuten. Erlojugilea zen usadio nardagarri hartara makurtu zen gizonetako bat.

Gobernadoreak, arrazoi nabarmenengatik, zubi berria aurreko presidentearen emaztearen izenaz bataiatu zuen.

Belusezko jakaren lepokoa goratu eta artilezko txapel biseraduna ezin beherago tenkatu zuen erlojugileak, estreinako tabernako ateak zeharkatu aitzin. Ez zen izaten taberna hura bere noizbehinkako gau haietako helmuga, baina akaso, egitera zihoanaren lotsa disimulatzeko, estreinako hiru edalontzi beteak bertan husteko ohitura bereganatua zeukan.

Tabako laino bafada bat atetik kalerantz arnastetuka irten zen, ke merkeak ihes egin nahiko balu bezala birika erraldoi eria zen taberna hartatik. Bi gizajok, txanponik batere sartu barik, txanpon-makina baten botoitxoak sakatzen zituzten; haien jokoak argi intermitenteen bide ilogikoa dezifratzea zen, antza. Dozena erdi bat militar-gai gaztek barratik gertuen zegoen lauko mahai baten bueltan dibertitzen ziharduten; haien ahotsa, ia nerabeena izanagatik, tabernaren espazioan ozen harrotzen zen. Bigarren mahaia hutsik zegoen. Hirugarren mahaian, hiru gizon gorbatadunek likore garestiekin egiten zuten topa, mahaiaren gainean zuden paperak ez ziprizzintzeko ardura saihestu ezin zuten. Laugarren eta azken mahaia, ateari eta zalapartari bizkarra ematen zion gizon bakarti baten okupatzen zuen. Erlojugilea barrako jesarleku luzanga batean eseri zen.

Tabernaria barraren beste aldeko harraskan zegoen burumakur, ez noski edalontzi nikotinaz eta likorez lohituak garbitzen (lan hori, aitaren baratzeak ureztatzeaz anitz jakin behar zuen emazte gaztearentzat utziko zuen); kanila erdi buxatutik irteten zen uraren eta aizto zorrotzaren laguntzaz, adreilu zuria zirudien izotz plaka zati irregularretan pitzitzen ziharduen. Aiztoa oraindik eskuan, erlojugileari zer hartuko zuen galdetu zion desgogoz. Erlojugileari «betikoa» gustatuko litzaioke erantzutea, baina

militar erretiratuei, badaezpada ere, gauzak zehatz-mehatz esan behar zitzaizkiela gogoratu eta, hatz erakuslearekin, apalategiko botila bat seinalatu zuen botilaren etiketatxoan silabaka astiro ahoskatu bitartean. Gainera, militar erretiratuek eskas oroitzen zituzten armada garaiko pasadizoak ez ziren bestelako kontu denak. Ez zen hori erlojugilearen kasua.

Trago luzeegia lapurtu behar izan zion edalontziari, pentsatu zuen erlojugileak, apenas konturatu baitzen gorbatadunek alde egin zutela. «Emagalduekin ospatuko dute sinatu berri duten kontratu ustela... bihar emazteari musu eman eta irabazle batekin ezkondu zirela ekarriko diote gogora», izan zen erlojugilearen hausnarketa, edalontzia hustuko zuen bigarren tragoa eman aitzin. Nor zen bera, bada, gorbatadunei kargurik hartzeko, ezberdintasunak ezberdintasun, itxuraz eta maila sozialaz gain, berak ez zeukan etxean inor zain. Tabernariari etiketatxoaren silabak errepikatu zizkion, oraingoan mantsoago, mingain lodituak hala behartuta.

Tabernariak bigarren edalontzia zerbitzatu zionean, edariak uhinetan egin zuen dantzaren barraren kontrako talka zela medio, eta erlojugileak hartzek errepasatu zituen edalontziaren kristalezko muga hertsia, alkoholezko itsaso harrotu hura menperatuko balu bezala. Eta arrotzaren erlojuan

imajinatutako emakume irudiaz akordatu zen. Ondoren bisitatzeko intentzioa zeukan emakumearen antza hartu zion; begiko orbaina eta belarri aldeko erredurak laztandu zizkion emagaldurena.

Esku bat sumatu zuen bizkarrean eta alkoholezko itsasoa berriro harrotu zen.

«Ez al duk berorik ala?» bihurria zen militar-gai mukizuaren tonua. Erlojugileak, dortoken antzo, burua jakaren lepokoan babestu eta «ez jauna» ahoskatu zuen, errekruta gazteari beharrean barneko ikarari erantzungo balio bezala. Beste gazte bat hurreratu zen erlojugilea jesarrita zegoen eserlekurantz, eta inolako abisurik emateke, txapel biserduna erantzi zion mugimendu azkar batez. Barne ikara areagotu zitzaion, ez zuen hargatik burua jiratu. Soldadu-gaiek oraindik ez zuten munstroa deskubritu. «Horrelako txapel politik maritxuek eta matxinoek soilik erabiltzen ditiztek, hi zer haiz, maritxua edo matxinoa?», bigarren gazteak txapela bere kideen mahaira jaurtiki zuen, eta haien arreta bereganatu. «Maritxua edo matxinoa?» oraingoan oldarkor tematu zen. «Ez bata ez bestea, erlojuak konpontzen egiten dut lan, jauna». «Eta auzoko marikoiek zenbat kobratzen diote ordua hi bezalako bati? Ziur haien ordularien orratzak trukatzan iaioa haizela». Mahaiko gazteek barre egin zuten. Barne ikarak eztarriko kordak asaldatzen bazizkion ere, erlojugileak mukizu haien errespetua irabazi behar zuen. «Soldadua ere izan nintzen», «eta zer egin huen ba, hire kapitainarekin enamoratu edo deser-

tatu?» barre berriek iraun zuten artean, erlojugileak apurka jiratu zuen burua errekruta harroputzengana. Begi bakarrarekin, nazkaz beteriko hamabi begi identifikatu zituen.

Kea ere isiltasun deseroso hartara makurtu zela zirudien, ez baitzuen bere ihes egiteko ahaleginean zirkinik atera, harik eta laugarren mahaian eseritako gizona gibelatuta emateari utzi eta ahoskera burlatiz giroaren ezinegona baretzen saiatu zen arte: «Lasai soldaduak, nik laga nioan aurpegia horrela gizagaixo horri, nire alabarekin ohean harra patu nianean, orain lagun minak gaituk, ez al duk horrela, motel?». Mahaitik altxatu zen, eta erlojugileari erraldoia iruditu zitzaion txantxa hura asmatu eta errekruten berba umiliagarrietatik lipar batez salbatu zuen gizasemea. Mahukarik gabeko alkan dorak bularralde gihartsua agerian uzten zion, eta beso biluzi pisua erlojugilearen bizkarrean erortzen utzi zuen. «Benetan, gazteok, ez dik merezi», mehatxua ere izan zitekeen esaldi lasaiarekin, gizonak kea isilarazi zuen osterara.

Lehenengo mahaian zeuden gazteetako batek erlojugilearen txapela barrara bota zuen, gizon gihartsuari arrazoia eman eta kideei «goazemak» esango balie bezala. Barran zutik zirauten bi errekrutetako batek irribarrea marraztu, eta izotz plaka jadanik urtua bazen ere, aiztoa askatu ez zuen tabernari zaharrari edandakoa kobratzeko eskatu zion. Lehengo mahaia libratu eta ke laino merkeak, dozena erdi errekrutekin batera, taberna abandonatu zuen.

«Etor hadi», agindutik gehiago zeukan gonbita egin zion gizonak erlojugileari. Eskerrak emateko ez bazen ere, erlojugileak esku batez txapela eta besteaz edalontzia hartu, eta erraldoiaren itzal ñimiñoa balitz bezala, haren pausoei segitu zien. Erlojugilea eseri zen laugarren mahaian ateari bizkarrara emanaz, horrela beharko, oraingoan gizon gihartsuak nahiago izan zuen tabernarako sarrera kontrolatuta eduki. Bi gizajoez txanpon-makinaren argiekin liluratua jarraitzen zuten, inguruari entzungor; tabernaria sukalderantz erretiratu zen, ziurrenik emazteari edalontziak garbitzea tokatzen zitzaiola abisatzera. Gizonak, balizko bake abagunea profitatuz, ezkerreko eskuaz alkandora jaso eta zerbait astuna estaltzen zuen zapia mahairatu zuen gerritik. Erlojugileari korapiloa libratu zezan erre gutu zion, ordura arteko baretasun ahots berberaz. Errebolber baten egurrezko kirtena agerian gelditu zenean utzi zion erlojugileak zapia askatzeari. «Ezagutzen al dituk kirtenean grabatutako hizkiak? bai noski... bazekiat nor haizen». Izerdi ilinti hotzak sumatu zituen lepoan ernaltzen. Gizon gihartsuak, agidanez, solas luzerako gogoia zeukan.

—Ez hadi aztoratu, gazte. Ez nauk hire bila etorri, kasualitate hutsez egin diagu topo. Hire zauriek salatu haute. Gogoan al daukaguz errebolber hau eskuetan izan huen azken eguna? Argituko diat gura baduk...

Tabernaria barrara itzuli zen trapu batez esku handituak igurtziz, sukaldean gertatu zenari damua astindu nahiko balio bezala. Inork ez zion emakume baten kexua izan zitekeenari erreparatu. Tabernariaren presentziaz ohartu orduko, gizonak itaunketa zirudiena eten eta berriro ezkutatu zuen errebolberra zeraman zapia alkandoraren azpian. Ezin esan ekintza hark erlojugilearen lasaitasuna ekarri zuenik, izerdi tantek lepoko erreduretan hazka egiten zioten ezarian-ezarian. Gizon gihartsuak ukabilak estutu eta kokotsean pausatu zituen, aurrez prestatuak ziruditen manerekin. Bekokia zirmurtzearekin batera soa erlojugilearen edalontzira gidatu zuen, bertan iragana ediren balu bezala. Marmolezko estatua hitzontzi bat izan zitekeen. Antzinateko orakulua.

—Iragan neguan matxinoen buruetako bat etorri zitzaian bisitan. Bazekian armadan armak konpontzen aritu hintzela, eta presidentearen fusilamenduan gertatu zen *istripuak* fidatzeko moduko morroia bihurtzen hinduen. Desagertua ibili hintzen denbora luzez, harik eta matxino talde batek erloju denda hartan beharrean hembilela deskubritu zian arte. Dendatik hire etxerako bidean zelatan izan hituen, eta hi ezertaz konturatu orduko, matxinoen buruak errebolber honen burdinarekin lantzantzen zian hire kaskezur kiskalia. Kakoari sakatu zioan, eta «ikusten, ez duk ezertxo ere gertatzen» edo antzeko esaldiren batekin erakutsi zian ez zela hi akabatzero joana. Enkargu bat zekarrean hire-

tzat: bere taldearentzat arma zaharrak konpondu behar hituen. Onartzen diat, ez huen enkargua beste beste irtenbiderik.

Eta arrazoi zuen gizon gihartsuak, iragan ne-  
guan bezalatsu, orduan ere, erlojugileak ez zeukan  
arrotz erraldoiaren hitzak beldurrez irentsi beste  
erremediorik. Nor zen, ordea, horren jakitun min-  
tzo zitzaiona? Zeintzuk ziren ahaztu nahiko lukeen  
iragan hurbila orainera ekartzearen motibo ez age-  
rikoak? Utziko al zion «orakuluak» behingoan  
ahots hain misteriosuz hitz egiteari?

Besoak lokartuta ez zituela jakiteko bederen, er-  
lojugileak edalontzia seinalatu zion gizonari, edate-  
ko baimen eske ariko balitz legez. Hura azken zu-  
rrutada izan zitekeela sinetsita, edalontzia hustu  
zuen. Gizonak bere berbari jarraiki bitartean, erlo-  
jugileak emakume biluzi baten dantza izan zitekeen  
na igarri zuen sabel barrenean, gori.

—Ez hadi larritu, adiskidea, ez nauk goberna-  
dorearen zakur horietakoa. Errebolberraren kirte-  
nean ageri den bigarren hizkia konpartitzen diat  
errebolberraren jabearekin. Nire anaia duk... edo  
hobeki esanda, nire anaia zuan haien armak kon-  
pontzera behartu hinduen matxino taldearen bu-  
rua. Armen muntaketarekin lan ederra egin huela  
ezin ukatu, baina segada batean denak garbitu zi-  
tiztean. Hura sarraskia. Biharamunean hiltzaile  
uniformatuen aurrean, sendikoek jaso behar izan  
genizkian gorpuzkin balakatuak. Anaiaren odolez  
blaitutako kartoi baten azpian aurkitu nian erre-

bolberra. Lan ona egin huen; oraindik bolbora erre usaina zerioan bala bakarra zeramaan danborrari. Eta lasai, ez diat bala bakar hori hire aurka erabiliko... gobernadorearentzat duk.

Gizon gihartsuari ez zitzaion tonu patxadatsua mudatu berbaldiak iraun zuen tartean, ezta ere erlojugileari azken sekretu hori aitortu eta tabernari koipetsuari beste bi edalontzi bete zerbitzatu zitzailea esatean. Bai, beharko zuen, bai, erlojugileak, adi-tutako guztia hobeki irensteko likorerik. Aitorpen horretan bere papera zein zen jakiteko eskubidea zeukan: militarren isilmandatari; ero mendekatzaille baten konplize; ahozko testamentu baten testigu; hildakoa bera... edo okerreanean, hiltzailea. Karraskaka atera zitzaizkion jada horren erraldoia iruditzen ez zitzaion arrotzari zuzendutako hitzak.

—Sentitzen diat hire anaiarena, baina zer gura duk nik egitea? Nik baino hobeto ikusten duanez, elbarri puta bat besterik ez nauk... zertara zetorrek kontu hau guztiau?

Ez zerien egia osoa erlojugile urdurituaren berbei. Aspaldi utzi zion hildakoengatikoko dolua sentitzeari. Gizonak ukabilak zabaldu eta eskuko marrak erakutsi zizkion erlojugile aztoratuari, lasaitasuna eskatu alde bainoago, isiltasuna eskatze aldera. Tabernariak bi edalontzi bete mahairatu zituen beste bi edalontzi hustuak erretiratu barik.

—Ez diat ezer eskatzen. Ez nauk hik pentsatzen duan bezain putasemea. Norbaiti kontatu behar nioan nire plana, eta begira, kasualitatea, hi azaldu

haiz nire azken gaua izan daitekeena borobiltzera. Badakik? Bihar izango duk, tiranoak unibertitate berria inauguratzen duenean.

—Erotu al haiz, hirekin ikusi naitek. Gobernadorearen bizkartzainek, edo haren soldaduek, edo guztiek zulatuko haute gobernadorea apuntatu orduko.

—Ez hadi kezkatu, dena kontrolpean zeukaat. Gainera, onenean nire konplize izateagatik heroi bihur haiteke; eta txarrenean aurkituko duk gezurren bat heure burua babesteko. Gezurrak esaten iaioa haizela ematen dik, ez diat uste putei hire zaurien egia inoiz kontatu dieanik... ziur nauk putak hunkitzeko baduala gezur erromantiko bat asaturik –haserre burlatiaren zantzuak nabari zitezkeen oraingoan arrotzaren bekoki markatuan–.

Edo erratuta nabilek eta egia esaten diek? Esaten al diek presidente ohia fusilatzeko aginduei kontra egiteko potrorik ez huela izan? Eta esaten al diek behin fusilatzeko pelotoian hengoela, ez huela presidente ohiari tiro egiteko ausardiarik bildu?

Gizonak bere tonua berriro leundu zuen, min eman nahia eta errukia nahasten ziren motelegi ahoskatzen zituen pasadizo krudeletan. Erlojugilearen oroimena zigortzen jarraitu zuen.

—...eta inor ohartzeko, lurretik hartutako harri txintxor batekin hire fusilaren hodia trabatu huen, halako zorte txarrez ezen, hire kaltea gaizki neurtu, eta kakoa zapaltzean fusila aurpegian lehertu baitzitzaian... inork ez zian kasurik egin lurrean odo-

lusten ari hintzen bitartean, soldaduek nahiago zitean gobernadoreak presidente erail berriaren kontra balategia nola agortzen zian ikusi. Ondo erre-matatu zian –gizona erlojugilearen eskua ukitzera ausartu zen. Haren begi bakarrak ilargi piper min-duaren itxura zeukan–. Ulertzen al duk orain? Hik ere denok gura duguna gura duk: mendekua.

Erlojugileak arrotzaren eskua baztertu zuen indarge. Oroitzapen agertu berriek abailduegi utzi zuten. Doi-doi asmatu zuen eserlekutik jaikitzen. Batetik bestera mugitzen zen edalontzia ehizatu, eta trago bakarrean hustu zuen barreneko itsasoa (emakume biluzi eta guzti). Bera zegoen zorabiatuta, ez edalontzia. Tabernariarengana gerturatu eta berak edan zituenak soilik kobratzeko esan zion, laugarren mahaiko gizona ez zela bere laguna, eta mesede bazuen, bueltarako txanponak makinako bi gizajoei emateko. Atea zeharkatu eta kea ilargiaren azala piper-mintzera abiatu zen.

Auzoan gora presaka zihoan erlojugilea, hirian errari zebilen azeri eria balitz bezala. Negar egiteko premia nabari zitzaion, baina horretarako, bere emagalduearen besarkada behar zuen. Artilezko txapela eskuan zeraman, eta espaloi ertzetan lohiarekin nahasten ziren itzalen irainei eta algarei entzungor, kale estu bateko horma arrakalatuan neoizko hodi moreek marrazten zuten ezpainera zuzendu zuen pausoa automatikoki. Ezpaineak, on-

gietorri modura, musu elektrikoak banatzen zituzten, lehen maitale nerabe lotsatien parekoak: orain bai, orain ez. Klubeko sarreran, goitik behera erortzen ziren plastikozko sugeak ziruditen gomazko lokarrietan kateatu, eta haragizko zerbitzua ordaindua zeukan bezero batekin egin zuen estropezu. Erlojugileak, bultzada eskergaitzez, uko egin zion kalerantz ateratzen ari zen arrotzaren laguntza jasotzeari. Ziurrenik, erlojugilea ez zelako fidatzen narruzko eskularru beltzak zeramatzaten ezezagunez. Eta erreparatu ez bazion ere, arrotzak narruzko eskularru beltzak zeramatzan, eta beroki zabal eta kapela gris iluna, eta bizar luzeak. Kaleak jan zuen arrotza, ezpain moreek erlojugilea.

Ezer eskatzeke, barra gurutzatu eta emakumez mozorrotutako agure bat ediren zuen okumezko atez beteriko korridorearen sarrera zaintzen. Honi bai, honi «betikoa» eskatu ziezaiokeen.

—Betikoa.

—Sentitzen diat, laztana, baina gaur ezingo duk izan —emakumezkoarena izan gura zuen agurrearen ahoskera mozorroa bezalakoa zen: patetiko—. Okupatuta egongo duk gau guztian, sei gaztek hartu diate, badakik nolakoak izaten diren errekruten baimen egunak.

—Nahi duana ordainduko diat, baina gaur behar dik izan.

—Adi ezak ondo, motel —oraingoan agureak berezko ahoskera hartu zuen, eta zeraman jitea are patetikoagoa gertatu zen—. Bi aukera dituk: hire so-

sak beste puta batekin xahutu edo, gura baduk, tragoa hartu eta etxera erretiratu ezkila han jotzera.

Bigarren aukeraren aldaera izan zitekeen hirugarren aukera bat zegoen, eta erlojugileak bide hori hartu zuen. Etxerakoa. Ezin zuen beste norbaitekin bere emagaldua engainatu; eta ezin jasan ahalko zuen, tragoa hartu bitartean, horren gertu, sei musikuz bere emagaldua nola izorratzen zuten ezinbestean irudikatzea.

Ezpain moreek musu emateari utzi zioten, emakume izena zeukan zubi berritik erlojugilea igarotzen ikustean.

Autoko ordulariak (beti ere erlojugilearen teoriaren arabera) gaueko hamabietarako zazpi minutu falta zirela erakutsi zion erlojugileari. Ondoko eserleku azpian dendako arrotzaren erlojua bertan zirauela ziurtatu, eta bere kabutarako pentsatu zuen zazpi minutu barru erlojuak konponduta egotearen itxura emango zuela. Egun berri baten koordinada gertuak behar zituen, gau lasgarriari akabera emateko.

Arrankatzearekin batera piztu zen estatuko irratia bakarraren diala. Gauerdiko albistegietan gobernadorearen bisita loriatsuaz jardungo zirela aurreratu zuen esatariak, eta hamabiak bitartean, aspaldiko kanta batekin belarriak gozatzeko gonbita egin zien bakardadearen edo insomnioaren gaitzak kutsatuta zeuden entzuleei. «Azkenean xamurtasun une bat

iraganean», erlojugileak haurtzaroa ekarri zuen gogora. Eta bere ama, irratiko kantu berbera belarrira xuxurlatzen igande goizetan.

Elkarrekin gosaltzen zuten amak eta biek garai eder haietan. Igandeetako arropa prest izaten zuen ohe gainean, kolonia tanto gutxi batzuez bustirik, bikain tolestuta; ikaragarri atsegin zitzaion igandeetako arropen zerien lurrina usaintzea. Usain hori zeukaten jantziek... ama usaina. Gero, tranbia hartu eta bulebarra zeharkatuko zuten eskua elkarri emanda, aita lanean ikustera. Hori ere egiten baitzuen erlojugilearen aitak igandeetan, lan. Baina merezi zioten ordutegi sakrifikatuaren nekeak aitari, pasioz eta maitasunez gozaten zuen beharra zeukan erlojugilearen aitak: presidente ohiaren jau-regiko zalditeriaren ardura berarena zen. Asteguntan moxalik basatienak hezten eta zaintzen jarduten zuen; larunbat osoa, lehendakariaren zaldundia osatzen zuten beste zazpi kideekin batera, bihar-muneko desfilea entseatzen emango zuen. Agian, garai haietan, horregatik miretsiko zuen horrenbeste erlojugileak aita: uniforme ilunean babestua eta ezpata distiratsu biluzia eskuan, bularretik zintzilikatzen zitzaizkion domina faltsu sarriekin, zaldi gainean erakusten zuen dotoreziarengatik. Ama eta biak beti jarriko ziren etorbide nagusiko leku berean, aitaren igarotzeak zekarren erreberentzia sotilaren esperoan. Egia esan, ostantzean, erlojugileak apenas sumatuko zuen aitaren zantzurik etxean; akaso ohean etzanda, lo alferretan, haren boza adi-

tuko zuen noizbait, amari «heldu naiz» esanez. Erlojugile haurrari berdin zitzaion, ordea, aitaren falta. Pagotxa zen berarentzat aitaren lana zein zen eskolan errepikatzea. Gainera, nahikoa zeukan amaren maitasunarekin, eta haren ahots eztiarekin, irratiko kantu berbera belarrira xuxurlatzen igande goizetan. Aitak zaldia eta domina faltsuak, gurpil aulkiarekin eta pilulen estalki zilarreztatuekin ordezkatu zituen arte. Mina berriro zetorkion bisitan, oroitzapen haiek guztiz egia ez zirela ohar-tu zenean.

Erlojugileak azeleragailuari eragin zion irmo, harik eta irratiko abestiaren azken akordeak autoaren motorraren eztul estuarekin mututu ziren arte. Hiriaren beste aldeko periferiak garaitzeko metro gutxi geratzen zitzaizkion, eta errepide mortua profitatuz, segundoka areagotzen zihoakion barne erredura noraino heldu zitekeen jakin gura zuen erlojugileak.

Autoaren argiek mira bakarra osatu zuten, tiro zelaian etsaia noiz agertuko zain baleude bezala. Suzko gezia zirudien autoak, gau itsuaren azpian, hiriko asfalto ikaztuaren gaindi ziztu bizian. Baina erlojugileak ez zuen hiriaren kontra talka egin nahi. Ez zuen lehertu nahi, barrenean suma zezakeen herrak hezurak okertzen bazizkion ere. Ez zion denborarik eman. Erlojuen denbora neurtzen maisua bazen ere, ez zion denborarik eman errepidean bat-batean azaldu zitzaion irudiaren aurrean gelditzeko. Ezkerrerantz biratu zuen bolantea iru-

dia saiheste aldera, senak hala aginduta, aurpegiko profil hori babestu nahiko balu bezala.

Bi itzuli eman eta porlanezko langaren kontra bortizki gelditu bitartean, bi pentsamendu baka- rrik etorri zitzaizkion erlojugileari: lehena, neskato zarpaildu batena izan zitekeela errepidean bat-ba- tean azaldutako irudia; eta bigarrena, ondoko eser- lekutik salto egin eta begi bistan paratu zitzaion arrotzaren erlojua ezinbestean konpondutzat jo ze- zakeela. Azken pentsamendu honek, odol zaporea- rekin batera, irribarre atsegina ekarri zion ezpaine- tara. Gero, beste norabait zihoala igarri eta begia lasai itxi zuen, bidaiia luzeari ekiteko gertu.

Autoko ordularian gaueko hamabiak jo zuten. Betiere erlojugilearen teoriaren arabera.

LEHERKETA BAT, LURRIKARA BAT... ohea bortizki kulunkatzen zela nabaritu zuen erlojugileak, eta begi bakarreko bekar ugariak hatzekin libratzeko beta-rik hartzeke, ohetik jauzi egin eta babesa bilatu zuen logelako mahai txikiaren azpian. Ez zuen sekula espero izango armadan ikasitako babes neurriak automatikoki errepikatu beharko zituenik bitzita zibilean; baina bai, sarjentu lodikote hark iraganean erakutsi zion eran, gorputza uzkurto zuen mahaiaren lau hankek birtualki markatzen zuten espazio mugatuan.

Altzairuaren irrintzi gorgarria aditu zuen erlojugileak, denbora laburrera porlan pitzatuaren eta egur ustelduaren kalaka ozen eta eroria bilakatuko zena. Bazirudien itzelezko burrundara haiek soilik lurperatu zezaketela hiriaren eraikin oro. Sabaitik askatu eta lurrean mila zatitan puskatzen ziren kare xaflak ikusten zituen erlojugileak, lurraren errit-

moan dantzari. Zinez dohakabea izan behar zuen piztiaren batek, buztan erraldoiarekin, paretak borxtatzeari ekin balio bezala irudikatzen zuen erlojugileak eszena surrealista osoa bere esnatze supitu ikaragarritik.

Hormak harrotzeari utzi aitzin, mehatxu bat baltiz bezala, azken danbateko batek logelan eskegitako erretratu bakarra irauli zuen. Bere egokiera fetalak horrela aginduta, erlojugileak ezin izan zuen eragotzi amaren fotoa babesten zuen kristal zati zorrotz bihurri batek, hura, gertatzen ari zen hura, amesgaiztoa ez zela ohartaraztea. Kristalak zauria eragin zion ipurmasailean, eta zauriak odol hari fina, eta min arina. Baina arina izanagatik mina zen, eta erlojugileak bazekien mina duenak esna behar duela egon.

Leherketa edo lurrikara edo dena delakoa baretu bazen ere, erlojugileak mahaiaren azpian iraun zuen tarte luze batez. Oraindik ere, bozina hots etengabe bat entzun zezakeen urrunean, ez giza oihurik, ez negarrik, suaren eta haizearen arteko sekretutxo isilak izan zitezkeen bozak eta bozina hots etengabea urrunean, besterik ez zitzaion iristen hiriaren hiztegitik. Erlojugileak bere burua kokatu behar zuen ez hemengo ez hango burmuinen anabasa hartan. Azken orduak erreparatu. Auto istripua etorri zitzaion ahul gogora. Bere gorputzetik bereizten den mamu hegalaria baten zentzu-

men gandutuekin oroitu zuen eszena erdi kodetu guztia:

Lixibaren usain sarkorra zetorkion, eta izara zuriak arnasa doi bat estutzen ziola, eta ez zuela poztasun berezirik sentitu istriputik bizirik atera izanagatik. Harridura bai, harridura sentitu zezakeen, esku-ohearen etzanetik, itxuraz behintzat, hezur bakar bat bera ere hautsia ez zuela baieztatzean. Estaltzen zuen izara aurpegitik baztertu eta bizkarraren oinen altueratik goratzean, ospitale batekoa besterik izan ez zitekeen korridore mortu batean aurkitu zuen bere burua. Garunean sumatzen zituen ziztada deserosoek eraman zuten apika erlojugilea arinegi pentsatzera. Bi aukera zituen: bata, onik zegoela esan ziezaion medikuren baten zain egotea, eta horrekin poliziaren alkohol kontrolaren bisitara arriskatzea; edo bestea, belauenen gainean zeraman plastikozko poltsa hartu, jaka jantzi eta ospitaletik ospa egitea. Ezein bata zurik ez zion ihesa zapuztu. Oinez egin zuen etxerako bidea. Ez zebilen taxirik ordu txikietan, eta taxirik hartuz gero ere larri ibiliko zen erlojugilea haren zerbitzua ordaintzeko garaian, jakako patriketan zeraman diru zorroan ez baitzuen billetearik aurkitu; auto matxuratuak egon behar zuen biltegiaren izena ageritzen notatxoa besterik ez. Berandu zebilen artatu zuten erizainei diru zorrotik lapurtua bueltatu ziezaioten eskatzeko. Etxerako lau kilometro eskas-tan erlojugileak ez zuen arima bat bera ere sumatu; kale garbitzaileak ere (pentsatu zuela akordatzen

zen), lan egin barik behar zuten egon, ez baitzen haien zigarro lodien kea usaintzen karrika desolatuetan. Bere kalea identifikatu ondoan, eta ezkaratzeko eskaileretan gora, horrelako gau irtenaldietan egin ohi zuenez, ez zitzaion lehenengo solairuko atso autubatzailearen pauso zelatarien astuna belarrietara iritsi. Behin etxe barruan, jantzita etzan zen ohean, eta galtzak eta galtzontziloak belaeuntaraino jaitsita ezkila jotzeko saio antzuan garaitu zuen loak.

Azken oroitzapen hark argitu zion zergatik zauritu zuen kristal hautsi zatiak ipurmasail biluzia. Biharamunaz gogoratzeak denbora eman zion ziurtatzeko etxeak beste astinaldi bat jasango ez zuela. Mahai azpitik altxatu eta galtzontziloak zaurira itsasten eta galtzak gerrira jasotzen zituen bitartean, etxeko beste gelek zein itxura zeukaten behatzera bizkortu zen. Arnasaldia lasaitu zuen, kalte handirik ez. Inoiz damutu gabekoa damutu zitzaion orduan erlojugileari: kalera ematen zuen leihorik gabeko etxea alokatzea. Kontratua sinatzean, etxeko jabeak lipar bat merkeago jarri zion alokairuaren bermea kalera ematen ez zuten leihoen kontuarengatik. Erlojugileari berdin zitzaion, eguzkiaren argia ez gozatzera ohitua zen dagoeneko. Baina orain, etxearen babesetik ikusi gura zuen kalearen piura, zergatik ez zen bozina urrunaren eztula behingoz eteten.

Hiru solairutako eraikin zaharraren azken solairuko ezkerreko atetik atera eta, erlojugilea, eskaile-  
ren azken edo lehen mailaren ertzean pausatu zen. Airean kulunkatzen zen zango erdiak aurrera jarraitzeko kuraia ematen zion. Beste erdiak gorpuzari eusten zion mesfidati. Oreka galtzeak eraman zuen erlojugilea aitzinera, bigarren maila orain eta hirugarrena gero. Lo gozoa belztu zion dardara bortitzaren iturria behar zuen ezagutu.

Lehenengo solairura heltzean atso zelatariaren katua ediren zuen erlojugileak. Giharrak tenkatu eta ileak zorroztu zituen katuak, eta arranpa eman izan balio bezala, erlojugilearen hankek libre uzten zuten tartetik, eskailerak gora abiatu zen ziztu gorrian, marraka elektriko batek jota. Katuaren ezustekoak kirioak are gehiago aztoratu zizkion erlojugileari. Egun arruntetan, kaleratzen edo etxeratzen zenean, katuaren begirakune mehatxagarrira ohi-tua bazen ere, inoiz ez zitzaion oldartu horrelako izualdi gordinarekin. Egun hark, ordea, ez zirudien inondik inora arrunta. Etxera itzultzean, katua bere atean aurkitzeko aukera asko zituela pentsatzeak azkuraren eta nazkaren arteko sentsazio nahasia eragin zion erlojugileari. Eskaileren heldulekua jo zuen eskumako ukabila itxiz, kemena berriro bereganatzeko keinu gisa. Heldulekutik at luzatu zuen beherantz begirada. Ilun zegoen, eta lurretik gailentzen zen zaku antzeko gauza are ilunago baten arrastoa deskubritu zuen erlojugileak. Auzo zerriren baten zabor poltsa izatea gustatuko litzaioke

erlojugileari. Aldiz, zakua zirudien hark hatzak zituena eta motots urdindua. Erlojugileak ez zuen zalantzarik izan: binaka jaitsi zituen atalondora iristeko falta zitzaizkion maila apurrak. Atsoarekiko bere sentimenduak ez baziren zinez zintzoenak ere, erlojugileak ahuspez zetzan atsoaren bizkar makurrean pausatu zituen eskuak. Senarrarengandik jasotako ezkontza izenez zuzendu bazitzaion ere, alargun jantziz bildutako atsoak ez zion erantzun. Erlojugileak atsoa buruz gora jartzea deliberratu zuen.

Loki odolduak adats zilarreztatua herdoiltzen zion atsoari. «Ziurrenik eskaileretatik behera eroridana», esan zuen bere baitarako erlojugileak zauri itsusi hura ikustean. Baina atsoak begiak zabalik zituena, eta begi bizi haietan ez zen izurik ageri; alderantziz, aurpegiko zimurrei nasaitasun hari ulertezin bat zerien. Arnasarik ez zen sumatzen atsoaren eztarritik nabigatzen. Atsoak herio eztia izan zuela ondorioztatu zuen erlojugileak. Ustez, alferrik jarri zizkion bi hatz lepoko zain nagusian pultsua hartzeko. Zur eta lur gelditu zen, ordea: haur batena baino osasuntsuagoak ziruditen taupada ozenak oparitu zizkion atsoaren bihotzak. Bizirik zegoen, edo hobeki esanda, atsoa ez zegoen hilik.

Erlojugileak oihu egin zuen laguntza eske, atsoaren garondo epela heltzeari utzi gabe. Katu intziria-  
ren oihartzuna besterik ez zitzaion iritsi bueltan, ez zen eraikineko sei ateetatik bat bera ere ireki. Auzoek berarekin zeukaten harremanaren errebaso

azkarra egin zuen erlojugileak. Beste estrategia bat asmatu ezean, jai zeukan auzoen arreta jaso gura bazuen. *Laguntza* hitzari *sua* erantsi zion, entzuna baitzeukan halako abisuekin soilik abandonatzen zituztela etxeak besteen arazoak saihestu nahi zituzten auzo berekoiek. Katuaren begi gorriak besterik izan ez zitezkeen bi argi deskubritu zituen azken solairuko ilunean.

Pipiak lartxo zulatutako egurrezko zoruan, ahalik eta leunen pausatu zuen atsoaren burua, eta bizilagunen erantzunik ezak etsita, eta aitzina gertatu astinaldia guztiz ahaztuta, kalerako atea zabaldu zuen, lagun ziezaiokeen bihotz zabaleko norbaiten xerka (nahiz eta ez ziren garai aproposenak horrelakoak usu topatzeko). Bozina hots etengabearen zartada jasangaitza egin zitzaion, eguzki izpi batbatekoek laino itxi batean eragiten duten mina bezain.

Kaleko airean hegaldatzen zen ke beltz eta hauts zuri astun bilduak ekarri zion gogora bere estreinako asmoa erlojugileari, alegia, astinaldiaren misterioa dezifratzea. Giro erreak itsututa zebilenez, bozina hotsa zetorkeen autorantz gidatu zuen pausoa.

Zaborrontzi erdibitu baten oinarriarekin egin zuen estropezu lehenik, eta bozina gorgarriari eusten zion autoaren gibelaldearekin gero. Esku ahurrekin autoaren profila laztandu zuen, gidariaren aterako bidea identifikatzeko asmoz. Ez zezakeen jakin astinaldiak berak autoaren kontra erauzia

zen edo autoaren abiadak bota zuen gidariaren atea irekitzea eragozten zion farola. Jakaren mahukaz leihatilan pilatutako hauts oreka astintzen saiatu bazen ere, ez zegoen autoaren barrualdea ikusterik. Atzeko atea libratzea lortu eta eserleku luzean bota zuen bere burua kanpoko hodeitzar lehorretik ihesi. Doi-doi itolarritik errekuperatu, eta gidariari egoera kaotiko haren guztiaren azalpenak eman eta eskatu behar zizkionean, ordea, barbarik barik geratu zen erlojugilea. Atzerako ispiluak bereak inolaz izan ez zitezkeen begi alai baina zurrun bitzuli zizkion. Zimurrik gabeko emakume gazte baten begirada bizia zen hura. Ongi aurkitzen al zen galdetu zion erlojugileak, eta zergatik ez bazekien ere, oraingoan ez zen harritu bizidun batek erantzun ez izanaz.

Gidariaren ondoko eserlekura pasatu zen bizkarra nahi baino gehiago makurtuz. Errepikatzen zihoazen une lazarri eta ulertezinen kate hartan, abegikorra izateak gutxi inporta bazuen ere, eserlekuan zeuden paperak goratu zituen ipurdiko zauriaren odol arrastoz ez zikintzeko. Ospitaleetan erabiltzen zituzten paperak ziren, finak. Emakumeak ez zeukan ageriko zauririk. Erlojugileak paperetako bat hartu eta emakume gazteari jarri zion ezpain parean. Atsoaren antzo, hark ere ez zerabilen airerik. Bi hatz lepoan jarri zizkion pultsua hartzeko, eta bazirudien emakumearen bihotzak gorputz osoan dardarizoa kutsatu ziola. Izua saihestu eta hipotesi zentzugabeenetan pentsatu behar zuen,

gertatzen ari zitzaion guztiari argi haria bilatzeko. Eskumako eskuaz emakumearen eskua hartu eta bozina nardagarritik baztertu zuen. Emakumeak ez zuen aurpegiko zoriontasun bisaia mudatu.

Oraindik ezkerreko eskuan zeraman paperari erreparatu zion. Bazekien kanpoan ez zuela derrepentean errauts antzekoak atertuko, eta emakumeari papera irakurtzeko baimen ero eta antzua eskatuz, jakin zuen egun hartan bertan esan omen ziotela emakumeari haurdun zegoela. «Hortik datorkizu poza», esan zuen erlojugileak, emakumearen aurrean agerian utzitako pentsamenduek inolako lotsarik sortzen ez ziotela. Ospitaleko paper utzi berrien azpian tabako pakete bat zegoen, erlojugileak zigarro bat isiotu zuen, eta barre zinikoa ezpaineratu zitzaion konturatu zelarik emakumeak, bi arrazoi nagusirengatik batez ere, denbora luzean ez zuela erabiliko tabako pakete hura.

Erantzunik ez zeukaten galdera gehiegi zera-bilzkion buruan: gainera zetorkion hondamendia ikusita zergatik demonio jo zuen emakumeak bozina? Zergatik ez zituen besoak bolantetik askatu eta instinctiboki sabela babestu? Zertara zetorren zoriontasun aurpegi erdi zerutiar erdi inozo hormatu hori? Zer zen kalea lanbrotzen zuen hautsa? Atsoa eta amagai gaztea kutsatu zituen gai kimikoren bat ote zen? Zergatik ez zen giza zantzurik aditzen? Lehergailuren batek eztanda egin al zuen? Izurritea zabaldu ote zen hirian? Bart erietxean txertoren bat jarri al zioten gaitzetik salbu egote-

ko? Zer zen gizakiak, maniki bihozduak balira bezala, ez hilik ez bizirik uzten zituen gaitz hura? Nork eta nola isuri zuen?

Kanpoan hauts jasa atertu zuela zirudien, eta erlojugileari iruditu zitzaion kaleko airea jasangarriago egingo zitzaiola auto barruan sortu zen zigarro kea baino. Erantzunak aurkitzeko unea iritsi zen.

Oina lurrean pausatzean hauts mantua altxatu, eta marra horitua deskubritu zuen erlojugileak. Errepide bazterrean autoa ongi aparkatuta zegoen. Hortaz, emakumeak autoaren motorra berriki piztu zuen norabait joateko, edo kontrari, laster itzaltzekoa zuen autoa aparkatuta uzteko. Burua errepidera goratu zuen. Hogeitabat metro kalean behera zeuden eraikin ororen horma zatiak pilatzen ziren porlanezko meta erraldoi irregularretan, eta hondakin errenkada hura noraino irits zitekeen ikustea eragozten zuten. Urrunean ageri zen ke morokil beltza zegoen lekua izan zitekeen hondamendi haren guztiaren habia.

Shock egoera jarraitu batek sortzen duen nekearekin begiratu zuen espaloi arrera erlojugileak. Errauts itsusiak estalitako gizonezko bat aurkitu zuen besoa agur eran altxatuta. Hura ere zurrun. Hortz sarrietan nabari zitzaion irribarreak salatzen zuen. Erlojugilea hasi zen nolabait gertatutakoa kostata harilkatzen: «Emakumea ospitaletik etorri da, haurdunaldiaren emaitzekin, senarra espaloian ikusi eta aparkatzen duen bitartean bozinari era-

gin dio, berri zoragarria edonola konpartitzeko go-goari ezin eutsirik».

Baina horrek guztiak astinaldia baino lehenago behar zuen gertatu.

Gibelera itzuli zen. Kanean gora, zutik iraun zuten etxebizitzak gehiago ziren; antza, astinaldiak eraikuntza garaienei soilik egin zien kalte. Bazirudien zerbaitek, ezpata kolpe zehatz eta horizontal batez, bost solairutara berdindu gura izan zuela erlojugilea bizi zen kalearen arkitektura. Autoaren kapotatik eskukada bat errauts hartu eta eskuan estutu zuen. Gero, hareazko erlojua balitz bezala, lurrera erortzen utzi zuen apurka hauts birrindua. Goitik, karrika hasten edo bukatzen zen lekutik, parean zuen autorainoko tartean, mugitzen ez ziren giza irudiak ezagutu zituen erlojugileak. Eszena horrek gogora ekarri zion erlojugileari aitak xakean jokatu nahi ez eta ukabilarekin taula kolpatu zueneko (ez zen ohartu absurdoa zela oroitzapen hura ekartzea begi bistan zeukan anabasa absurdoaren erdian). Irudietako batzuk porlanezko harritzarrek erdi estalita agertu zitzaizkion; beste giza irudi batzuek lurrean geldi zirauten, momentuaren bat-bateko gelditzeak oreka galtzera behartu izan balitu bezala. Azken hauek ematen zioten beldur gehien erlojugileari. Erdi-biziek. Eta giza irudi haien artetik ez igarotzearren, edo zentzurik gabeko egoera horren iturria zer izan zitekeen behingoz jakitearren, kanean behera abiatzea deliberatu zuen, porlanezko meten gaindi, ke morokilaren sorbururantz.

—LAGUNOK, SINETSIKO EZ DUZUEN zerbait bitxia gertatu zaidak gaur —esan zuen erlojugileak, barra atzetik tabernako botilarik garestiena eta merkeena, biak, hiru lagunen mahaira balantzaka zeramatzan bitartean—. Hegazkin baten lurreratzeak esnatu naik. Bai, bazekiat, horrek ez lukeela harrigarria izan behar aireportuan lo banengo, baina kontua duk etxean nengoela ohean etzanda, eta bat-batean, itzelezko dardara jarraitu batek hormak dantzan jarri ditik.

Botila merkeenaren ardo mikaztuz bete zituen hiru mahaikideen edalontziak. Botila garestian zegoen likorea berarentzat gorde zuen.

—Ederretik libratu nauk. Etxetik atera eta kalean kristoren porlan hautsa altxatua zegoan. Hautsa guztiz pausatu arte itxoin diat, batere kasurik egiten ez zidan emakume baten autoan. Egia esan, nire piurak ikusita normala, bortxatzaile bat edo lapurren

bat izango nintzela pentsatuko zian ziur asko. Baina ez diat ez bortxatu ez lapurtu. Beno, zigarro paketea hartu zioat, baina bere hobe beharrez, haurdun zegoan eta.

Erlojugileak amagaiari hartutako paketeko azken zigarroa piztu eta paketearekin bolatxo bat egin zuen. Ingurura begiratu eta barran zutik zegoen ongi loditutako gizon bati bota zion bolatxoa. Buruan eman ostean gizon lodiak zirkinik egiten ez zuela ikustean, tabernako isiltasuna urratzera ausartu zen barre txikia atera zitzaion erlojugileari. Alkoholak zozotuta zegoen.

—Ikusten? Hauxe aurkitu diat hirian... —txurrit luzea ostu zion botila garestiari eta bere kontakizunean atzera egin zuen—. Hegazkin eroriaren arrastoari jarraitu zioat, hark utzi dituen hondakinen gaindi. Gobernadorearen estatua erraldoia inguratzeko duen parkean zegoan hegazkinak gabeko hegazkina, azken suak belztua. Eta orduan hasi nauk ulergaitza dena ulertzen: parkean, hegazkinak utzitako desolazio bidetik salbu, txakur izuti bat zegoan lurretik mugitzen ez zen jabearen eskuko uhaletik tiraka, ihes egin nahiko balio bezala. Banku baten goxoan, bi amorante gaztek, nahiz eta zentimetro eskas batera zizkiaten bata bestearen ezpain irekiak, ezin lortu musu perfektu hilezkorra gauzatzetik. Haur bat, aulki kulunkarian zegoan jarrita, eskutxoak aulkiaren katei gogor helduta. Parkean zebilean haize finak soilik mugitu zitzakean bere gonon bolante urdinak...

Erlojugileak hatzak erre zituen zigarrokinarekin. Gertuen zeukan mahaikidearen ardoan hatzak sartuz gorritu zituen erredura arinak. Edalontziaren jabeak ez zion kargurik hartu egindako zikin-keriarengatik. Tabernaren espazioa ia guztiz bete zuen barre ozenago bat atera zitzaion oraingoan. Gero, botila ia guztiz hustu zuen tragoa eman zion likore garestiari.

—Hirian zer arraio gertatu den jakin behar nian, horregatik igo nauk gobernadorearen estatuara, hiriko ikusmira zabalena eskaintzen duelako. Ez inondik inora harenganako adorazioz... —erlojugilea harritu egin zen gobernadorearenganako zuen iritzia horren era sinplean konpartitu izanagatik—. Igogailua bazebilen ere, ez nauk hartzera ausartu, edozein momentutan joan zitekean argia, baita hemen ere. Oinak eta birikak laga ditiat behatokirako zazpiehun eta berrogeita zortzi mailak igotzen. Nola dakidan zazpiehun eta berrogeita zortzi maila daudela? Ba, nahiago nian eskailerak zenbatu, eskaileretan zehar erorita zeuden giza panpinen begiradak bildumatu baino.

Orduan, erlojugileak estreinakoz egin zien so bere hiru lagunen begiradei. Inozoen so itsusia zeukaten hirurek. Bi gauza deskubritu zituen erlojugileak: batetik, lagunek eramán beharko luketela aurpegia estalita, eta ez berak. Bestetik, ahantzita zeukala artilezko txapela biseraduna non galdu zuen. Txapelaren beharrik ez zuela ohartzean, ordura arteko barrerik zalapartatsuena atera zitzaion

barren-barrenetik. Akabo, erlojugile hordituak azken txurruta lapurtu zion botilari, kontakizunaren azken atalarekin segitu aitzin.

—Marmolezko gobernadorearen begi erraldoietatik, hiria bere zabalean agertu zitzaidaan, arima zantzurik barik. Beste sute bakan batzuk altxatzen ziren auzoetan, baina horiei ere garra moteltzen ari zitzaien. Gora begiratu eta eguzkiak bere beroan jarraitzen zian. Hegazkinen inolako urradurarik gabe zero azul-azula. Arratsaldeko bostak izango zituan, eta nire kalkuluen arabera bost ordu lehenago esnatu nindian hegazkinaren danbatekoak... suposatzen diat, pilotuak hamabiak aldean galduko zuela hegazkinaren kontrola. Suposatzen diat hamabiak aldean gelditu dela hiria esna baina lo, gaitz arraroak jota.

Nagiak eman ziolako, ez beste ezergatik, erlojugilea ez zen barrara gerturatu beste botila garesti baten xerka. Lagunen edalontzi merkeetatik edaten hasi zen. Oraingoan ez zuen barrerik egin.

—Onartu beharra diat: ez zakiat zein gaitz edo mirarik, gizakiaren denbora gelditu dik hirian, edo agian estatuan, edo agian munduan. Eta beldurtzen nauena ez duk hori, benetan beldurtzen nauena zera duk: ni ote naizen ez erdi bizirik, ez erdi hilik... bizirik jarraitzen duen bakarra.

Tabernako argia itzali zen bat-batean, zirkuitulabur baten eraginez. Erlojugilea asaldatu bainoago poztu egin zen, gautzen ari zuen kanpoan eta loaren gozoa zetorkion astun. Ahalik eta azkarren bukatu gura izan zuen kontakizuna.

—Eta besterik ez, lagunok. Gobernadorearen metalezko hesteetatik berriro jaitsi eta parkeko txakur izutia jabearen uhaletik askatu diat, bi amorante gazteen ezpainak lotu ditiat eta bultzada leun bat eman zioat aulki kulunkariari. Gero, ordaindu ez ditudan trago batzuk hartu ditiat... baina hori, lagunok, ez esan inori.

Besoei burko forma eman zien, eta ahalik eta era erosoenean kokatu zuen burua haragizko habia hartan. Hiru mahaikide lagunen bihotz taupaden erritmoan, loak garaitu zuen erlojugilea.